

## 2. GAIA. IKUSKARITZAKO ARAU TEKNIKOAK

### ZEREGINAK

#### 2.1.NIA-ES BILAKETAK EGIN

##### 2.1.1. IFAC eta ICAC-en Web orrietan NIA-ES arauak bilatu

Esteka: <https://www.iaasb.org/>

Esteka: <http://www.icac.gob.es/>

Esteka hauek 2021eko otsailean berreskuratua izan dira

Laguntza: ICACen Web orri berritik BOICAC kontsultak nola berreskuratu PowerBI desktop erabiliz. Ikus David Uyarra, ForTiming & Gesia proiektuko arduradunak prestatutako bideoa:

<https://youtu.be/9veE9iS3pqE>

##### 2.1.2. Zertarako zehazten du auditoreak garrantzi erlatiboa edo materialtasuna?

Irakurri, NIA-ES 320. *Importancia relativa o materialidad en la planificación y ejecución de la Auditoría.*

#### 2.2.INDEPENDENTZIA BERMATZEKO MEHATXU-BABES SISTEMA

Auditorearen independentzia arriskuan jarri dezakeen ondorengo kasu hipotetikoaren aurrean babes sistema proposatu.

Egoera: Bodegas KATXISSS enpresak auditoretza lanak egiteko kontratatu zaitu.

Independentziaren aitortza idatzia sinatu duzu lanean hasi aurretik.

Auditoretza lana behar bezala egin da, nabaritasun egokia eta nahikoa lortu da eta aldeko iritzia eman da.

KATXISSS enpresako gerentea oso gustura gelditu da egin duzun lanarekin eta bi opari egin dizkizu:

- Bere markako 3 ardo botila.
- Aste bukaera bat lantaldeko kide guztientzat eta euren bikoteentzat bere bodegako hotelean (4 izar ditu).